



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urtarrilaren 30a

12. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, 5.498.455 euroko kreditu berezia ematekoa, Ekonomia Susper-tu eta Enplegua Sor-tzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruz-ko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Estatuako Gobernuari exijitzen zaio erreferendum bat egin dezan Estatuaren forma politikoari buruz (monarkia ala errepublika), eta Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari eska-tzen zaie “prozesu konstituziogile errepublikar” baten aldeko aldarria egin dezaten. Izquierda-Ezkerra par-lamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da IPES Elkartearikiko hitzarmena berri-tu dezan. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Baztan-Bidasoa eskualdearen egungo hezkuntza-premien diagnosia egin dezan, idatzizko konpromiso irmoa har dezan LHko ikastetxe integratu berri bat eraikitze behar diren jarduketak abian jartzeko, eta Elizondo LH-BHI ikastetxe gabezia larriak konpon ditzan. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitzikio Hassanna Aalia-ri, asilo politikoa ukatu diotela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, adingabeei laguntzeko zuzendaritza batzordeari buruzkoa. Amaya Zarranz Errea andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Iruñearen eta Ubarmin Klinikaren arteko hiriarteko garraioaren irisgarritasun-baldintzak betetzeari buruzkoa. Patxi Leuza García jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren meteorologiako estazio automatikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikuluan aipatutako konpentsazioa 2011n, 2012an, 2013an eta 2014an exekutatuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, 5.498.455 euroko kreditu berezia ematekoa, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Nafarroako Gobernuak, 2015eko urtarrilaren 21ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentuari igorri dio 5.498.455 euroko kreditu berezia emateko Foru Lege proiektua, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finan-tza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea 5.498.455 euroko kreditu berezia emateko Foru Lege proiektua, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialera-ko Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko.

**2.** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalme-na Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Ba-tzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2015eko otsailaren 23an, eguerdiko hamabietan, bukatu-ko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. arti-kuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahal-ko dizkiote foru lege proiektuari.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proiektua,  
5.498.455 euroko kreditu berezia  
ematekoa, Ekonomia Suspertu eta  
Enplegua Sortzeko Akordioaren  
nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kon-  
tseiluaren finantza-beharrizanei  
2015ean zehar erantzuteko**

**ZIOEN AZALPENA**

Solaskide sozialekin mintzatzeko bidea izatea Europako gizarte ereduaren zutabeetako bat da. Eta eredu horrek erro sendoak ditu Europar Bata-suna eratu zuen Tratatuan. Era berean, Europako Erregioen Batzordeak behin baino gehiagotan nabarmendu du Europako Enplegurako Estrate-gian ezarritako helburuak lortzeko, kontuan hartu beharko dela tokian tokiko ikuspegia, eta erregio mailako enteei euren lehentasunak ezartzeko behar adinako malgutasuna eskaini beharko zaie-la.

Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organiko-ak eta Langileen Estatutuak “ordezkaritasun han-dieneko” izaeraren aitortzea egin dute, bai eta izaera hori sindikatu- eta enpresaburu-erakunde jakin batzuei aplikatzea ere, haien ezarpenaren norainokoaren arabera, halatan kualifikatuz admi-nistrazio publikoekin duten harremanerako. “Ordezkaritasun handiena” irizpide gisa erabiltzea Konstituzio Auzitegiaren doktrinak berretsi eta zedarritu du.

Itun sozialak, azken bi hamarkadetan, emaitza garrantzitsuak eman ditu Nafarroaren garapen ekonomiko eta sozialerako. Une honetan beha-rrezkoa da prozedurak berriro egokitzea, enpre-sen, langileen eta, oro har, gizartearen premia eta eskaera berriei moldatzeko. Horregatik, 2013ko irailean, Nafarroako Gobernuak Elkarrizketa eta Itun Sozialerako Mahai Iraunkorra eratu zuen. Mahai hori kontsultarako organo bat da, zeinaren

helburu nagusiak baitira ekonomiaren nahiz lanaren arloko eta arlo sozialeko analisisa, gogoeta, negoziazioa eta ituna.

2014ko urriaren 3an, Nafarroako Gobernuak eta ordezkartasun handiena duten eragile sozialek Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioa izenpetu zuten, ekonomia sustatzeko, industria ehuna sendotzeko, enplegu politikei norabide berria emateko eta Elkarrizketa Soziala finkatzeko.

Nafarroako Parlamentuak, bere aldetik, azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea onetsi zuen, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duena, ordezkartasun handiena duten eragile ekonomiko, sozialen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren bilgune, parte-hartze eta negoziazio instituzionalerako organo goren gisa. Haren eskumenenetan nabarmenenak hauexek dira: langile eta enpresaburu guztiei dagozkien interes orokor, komun, sektorial eta sektoreartekoak sustatu eta defendatzea. Bereziki, arlo ekonomikoko, arlo sozialeko, lanaren arloko eta gizartearen bizi-kalitatean eragina duten interes orokorreko arlo guztietako gaien negoziazioa eta ituntzea. Azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legearen 16. artikuluan xedatutakoari erantzuteko, Kontseilua eratzeko bileran erabaki zen, besteak beste, aurrekontuaz janztea Ekonomia Suspertzeko eta Enplegua Sortzeko Akordioa eta Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua; horretarako, nahitaezkoa da aurrekontuan aldaketa egin eta onestea, hemen zehazten dena.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 4. artikulua ezartzen duenez, foru lege bidez arautuko dira Nafarroako Aurrekontu orokorrak, eta haien aldaketak ere bai, kreditu bereziak edo kreditu-gehikuntzak emateari buruzkoak badira.

Esandako guztiagatik, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikuluan ezarritakoarekin bat, beharrezkoa da kreditu berezi bat ematea onestea, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko.

**Artikulu bakarra.** Kreditu berezi bat ematea.

1. 5.498.455 euroko kreditu berezia ematea onesten da, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko.

2. Kreditu horren zenbatekoa honako kontu-sail hauei aplikatuko zaie:

– 170002-15200-4819-242109, “Enplegu Plana. Hitzarmena CEN, UGT eta CCOO erakundeekin, enplegu aukeratarako ibilbideen programetarako” izenekoa; 2.592.805 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-4819-242107, “Enplegu Plana. Hitzarmena CEN, UGT eta CCOO erakundeekin, kualifikazio ibilbideen programetarako” izenekoa; 1.500.000 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-4819-242108, “Enplegu Plana. Hitzarmena CEN erakundearekin prestakuntza dualeko programetarako” izenekoa; 73.650 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241113, “Enplegu Plana. Hitzarmena UGT eta CCOO erakundeekin enplegu programa integralak egiteko” izenekoa; 300.000 euroko zenbatekoa.

– 1700002-15200-4819-242105, “Enplegu Plana. Hitzarmena CEN erakundearekin zuzendaritzako kideen prestakuntza programetarako eta jarduketak egiteko familia enpresetan” izenekoa; 32.000 euroko zenbatekoa.

– 190000-19100-4819494109, “Enplegu Plana. Hitzarmena UGT eta CCOO erakundeekin, erantzukizun soziala garatzeko programetarako” izenekoa; 100.000 euroko zenbatekoa.

– 190000-19100-4819-494110, “Enplegu Plana. Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan parte hartzeagatik konpentsazioa” izenekoa; 900.000 euroko zenbatekoa.

3. Aipatutako kreditu berezia 2015erako luzatutako 2012ko aurrekontuko kontu-sail hauetan erabilgarri dagoen kredituarekin finantzatzeko da:

– 170000-15000-2276-241100, “Enplegu Plana. Giza talde jakin batzuetan enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programak” izenekoa; 165.000 euroko zenbatekoa.

– 170000-15000-2276-241300, “Informazio, komunikazio eta bestelakoetarako laguntza teknikoa” izenekoa; 43.604 euroko zenbatekoa.

– 170000-15000-4819-241115, “Enplegu Plana. Giza talde jakin batzuetan enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programak” izenekoa; 677.224 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-2269-241300, “Enplegu Plana. Europar Batasuneko funtsekin kofinantzuriko programetan parte hartzeagatik gastuak” izenekoa; 24.990 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241103, “Enplegu Plana. Hitzarmena UGT eta CCOO erakundeekin etorkinen prestakuntza eta laneratze ekintzetarako” izeneko; 191.928 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241109, “Enplegu Plana. Hitzarmena UAGN, UGT eta CCOO erakundeekin nekazaritza arloko enplegu programetarako” izeneko; 246.544 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241110, “Enplegu Plana. Hitzarmena CEN, UGT eta CCOO erakundeekin egonkortasun programak egiteko, deklaratu gabeko enplegua arautzekoak, eta autonomo eta ekin-tzaileen gaiak” izeneko; 276.682 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241112, “Enplegu Plana. Hitzarmena UGT eta CCOO erakundeekin etorkinen prestakuntza eta laneratze ekintzetarako” izeneko; 48.803 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241302, “Enplegu Plana. Hitzarmena CEN erakundearekin berdintasun, bateratze eta emakumeen enplegu programak egiteko” izeneko; 138.795 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-2269-242102, “Enplegu Plana. Energia Berriztagarrien Prestakuntzarako Erreferentzia Nazionaleko Ikastetxearen funtzionamendu gastuak” izeneko; 160.000 euroko zenbatekoa.

– 1700002-15200-2276-242100, “Laneko esperientziaz lortutako gaitasunak egiaztatzeko

prozedurak garatzea” izeneko; 200.000 euroko zenbatekoa.

– 1700002-15200-4819-242100, “Enplegu Plana. Hitzarmena INAFREekin enplegurako prestakuntza ekinbide eta ekintzetarako” izeneko; 63.960 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-4819-242104, “Enplegu Plana. Enplegurako lanbide prestakuntza, batez ere lana dutenentzat, eta enplegua sustatzen duten beste batzuk” izeneko; 1.062.580 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-4709-242102, “Enplegu Plana. Langileen enplegurako prestakuntza ekin-tzak” izeneko; 1.714.395 euroko zenbatekoa.

– 170000-15300-2276-241300, “Enplegu Plana. Laguntza tekniko” izeneko; 130.000 euroko zenbatekoa.

– 170000-15300-4819-241300, “Enplegu Plana. Hitzarmena INAFREekin INAFREren Enplegu Behatokirako” izeneko; 275.000 euroko zenbatekoa.

– 170003-15400-4819-241100, “Enplegu Plana. Hitzarmena UGT eta CCOO erakundeekin laneratze orientazio ekintzak egiteko” izeneko; 78.950 euroko zenbatekoa.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Ana Beltrán Villalba andreak Foru Lege proposamena aurkeztu du, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia**

**ZIOEN AZALPENA**

Herritarrentzako eta enpresentzako zergazama murriztea izan da Espainiako Gobernuak eta autonomia erkidegoetako gobernuek –horien artean, Nafarroakoak– azken hilabeteotan onetsi dituzten erreforma fiskalen oinarria.

Foru Lege proposamen honen helburua da iragan abenduan onetsitako zerga-murrizketa sendotzea eta handitzea. Kasu honetan, azpimarra jartzen da familia-zama handienak dituzten herritarren sektoreetan; esaterako, familia ugariak eta ezgaitasunen bat duten pertsonekin bizi diren familiak.

Espainiako Gobernuak araubide komuneko erkidegoentzat iaz onetsitako erreforma fiskalak, zeina zergadunen 2015eko urtarrileko nominetan izanen baita eragingarria, familia espainiarrei laguntzeko neurri berri bat jasotzen du: Nafarroako zerga-araubidean ez dagoen kenkari bat. 1.200 euroko kenkari berezi bat da, familia ugariei eta ezgaitasunen bat duten pertsonen ardua duten familiei zuzendua. Kenkari hori erregelamendu bidez garatu da, halako moduan non familiek eskubidea baitute, halaber, kenkari horretaz eskaera eta kobrantza aurreratuaren sistemaren bidez baliatzeko.

Kenkari horrek zergadunei laguntza ekonomiko handia dakarkie, noiz eta bereziki zaila den testuinguru ekonomiko eta sozial batean, eta beharrezkoa da familia nafarrek kenkari hori baliatu ahal izatea; hartara, beharrezkoa da kenkari hori gure erkidegoan berdin aplikatu ahal izatea. Eta

ezin dugu ahaztu familia nafarrek eskueran duten errenta igotzeak ondorio positiboak izanen dituela kontsumoari eta aldagai ekonomiko ezberdinei begira.

#### **Artikulua bakarra.**

Bat. Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea honela aldatua da:

Bi. 62. artikuluari idatz-zati berri bat gehitzea.

“62. artikulua.

13. Ezgaitasunen bat daukaten pertsonentzako eta familientzako kenkari berezia.

1) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako subjektu pasiboek familientzako ondoko kenkari berezia aplikatzen ahalko dute, baldin eta beren gain edo besteren kontura jardueraren bat egiten badute eta jarduera horrengatik Gizarte Segurantzaren edo Mutualitatearen araubidean alta emanda badaude.

a) Familia ugariak 1.200 euroko kenkaria aplikatzen ahalko dute urtean.

b) Kategoria bereziko familia ugarien kasuan, kenkaria 2.400 eurokoa izanen da.

c) Kenkaria 1.200 eurokoa izanen da urtean, ondorengo ahaideengatik gutxienekoa aplikatzeko eskubidea duen ondorengo ahaide tzagitu bakoitzarengatik.

Kenkaria 1.200 eurokoa izanen da urtean, aurreko ahaideengatik gutxienekoa aplikatzeko eskubidea duen aurreko ahaide ezgaitu bakoitzarengatik.

d) Kenkaria 1.200 eurokoa izanen da urtean, aplikatzeko den araudiaren arabera familia ugari bateko aurreko ahaidea edo gurasorik gabeko neba-arreba izateagatik.

Bi zergadunek edo gehiagok baldin badute arestiko kenkarietako bat aplikatzeko eskubidea aurreko edo ondorengo ahaide berarengatik edo familia ugari berarengatik, zenbatekoa haien artean hainbanatuko da.

2) Kenkariak kalkulatuko dira arestiko 1. idatz-zatian ezarritako baldintzak aldi berean betetzen direneko hilabete kopuruaen arabera, eta zergaldi

bakoitzean Gizarte Segurantzari eta mutualitateei sorrarazitako kotizazio eta kuota osoak izanen dituzte muga, kenkarietako bakoitzerako. Halere, ezgaitasuna daukaten aurreko edo ondorengo zenbait ahaiderengatik baldin badaukate arestiko idatz-zatiko b) edo c) letretan ezarritako kenkarirako eskubidea, horietako bakoitzarentzat aplikatuko da muga hori.

Muga hori kalkulatzearen ondorioetarako, kotizazio eta kuota horien zenbateko osoak hartuko dira aintzat, legozkiekeen hobariak kontuan hartu gabe.

3) Nafarroako Zerga Ogasunari eskatzen ahalko zaio kenkariak alde aurretik ordaintzea. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentziala murriztuko.

4) Erregelamendu bidez ezarriko dira kenkari berezi horretarako eskubidea 2015eko urtarrilaren 1etik aitzina aplikatzeko prozedura eta baldintzak.

Hiru. Xedapen iragankor bat gehitzea.

Erregelamendu bidez ezarriko dira familientzako kenkari berezia baliatzeko eskubidea izateko prozedura eta baldintzak, bai eta kenkaria alde aurretik ordaintzea zer kasutan eskatzen ahalko den ere.

Halaber, erregelamendu bidez ezartzen ahalko da zer kasutan lagatzen ahalko zaion beste zergadun bati kenkaria baliatzeko eskubidea, baldin eta hark ere badu kenkaria aplikatzeko eskubidea aurreko edo ondorengo ahaide berarengatik edo familia ugari berarengatik.

Kasu horretan, artikulua honetako bigarren idatz-zatian aipatutako kenkariaren kalkularen ondorioetarako, batera hartuko dira kontuan lege honetan ezarritako baldintzak aldi berean betetzen direneko hilabeteen kopurua nahiz kenkarirako eskubidea daukaten zergadun guztien Gizarte Segurantzarako eta mutualitateetarako kotizazio eta kuota osoak.

Ulertuko da lagapen honetan ez dagoela irabaziko eskualdatzerik zergen ondorioetarako.

#### **Azken xedapena.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuari exijitzen zaio erreferendum bat egin dezan Estatuaren forma politikoari buruz (monarkia ala errepublika), eta Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari eskatzen zaie “prozesu konstituziogile errepublikar” baten aldeko aldarria egin dezaten.**

*IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuari exijitzen baitzaio erreferendum bat egin dezan Estatuaren forma politikoari buruz (monarkia ala errepublika), eta Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari eskatzen baitzaie “prozesu konstituziogile errepublikar” baten aldeko aldarria egin dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin: Jadanik hogeita hamasei urte bete dira 1978ko Konstituzioa ohiz kanpoko egoera batean onetsi zenetik. PPren eta PSOEn alderdi biko erregimen monarkikoak eskuin nazionalisten babesarekin sendotu duen konstituzio horren eraginez, estatuak gero eta gutxiago dauka sozialetik (murriztu egin dira eskubide ekonomiko eta sozial asko, lana, etxebizitza, osasuna, hezkuntza nahiz

gizarte segurantza edukitzeko eskubidea, emakumeek sexualitateari eta amatasunari buruz erabakitzea, eta ez dago sistema fiskal justu eta progresiborik), gero eta gutxiago demokratikotik (parte-hartzea oztopatzen da, hauteskunde-sistema ez da oso proportzionala, hedabideak botere ekonomikoaren zerbitzuko oligopolioa dira), gero eta gutxiago zuzenbidekotik (ez da borrokatzen ustelkeriaren aurka, zapaldu egin nahi dira manifestazio eta adierazpen askatasunak, politizatu egiten da Justizia, eta eragotzi egiten da herritarrek hura baliatu ahal izatea). Egiaz errespetatzen diren konstituzio-arau ia bakarrak dira monarkiaren printzipioa, Espainiaren batasuna eta subiranotasuna eta Troikak inposatuta 135. artikuluaen saldukeriazko erreforman jasotako dogmak; alegia, defizita murriztea, zorra ordaintzeari lehentasuna ematea eta austeritatea. Erregimenaren gainbeherak, gainera, pobrezian murgilarazi du gehiengo, gutxiengo baten mesedetan.

Salbuespenezko egoera historiko baten aurrean gaude berriz ere. Trantsiziotik heldu den erregimena agortuta dago, eta ez die erantzuten herritarren gehiengoaren beharrezaneiei eta xedeei; baina, horren aurrean, botere ekonomikoek ez dute besterik proposatzen sistema zurkaiztea baino, aldaketa instituzional puntual eta mugatuak eginez (Juan Carlos I.ak Felipe VI.aren mesedetan abdikatea) eta, kasua bada, Konstituzioa aldatuz PPK proposatzen duen birzentralizazioa sendotzeko, eskubide-murrizketa ezartzeko, hauteskunde arloko legedian atzerapausoak egiteko eta politika ekonomikoak nazioarteko kapitalaren zerbitzuan jartzeko. Zerbait aldatzea, ezer ere alda ez dadin.

Berriz ere gaude erregimena aldatzearen ala haustearen arteko dilemaren aurrean. Herriari hi-



tza ematearen aldekoak gara, konstituzio berri bat lortzeko, ideia nagusi batetik abiatuta: herritarrak dira politikaren subjektu nagusiak.

Alderdi politikoek eta bestelako erakunde sozialek herritarren zerbitzura egon behar dute. Prozesu konstituziogilea ez dugu ulertzen egungo erakundeek konstituzio berri bat idaztea soilik denik, ez; gure ustez, herritarrak botere konstituziogilearen titularra direla berretsi beharra dago, eta hori guztia eztabaida ireki eta parte-hartzaileko prozedura baten bidez eraman beharra dagoela aurrera.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari exijitzen dio erreferendum bat egin dadin Estatuaren forma politikoari buruz (monarkia ala

errepublika), Konstituzioaren 92. artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die "prozesu konstituziogile errepublikar" baten aldeko aldarria egin dezaten, herritar guztien parte-hartzearekin, konstituzio berri bat ekarriko duena. Konstituzio berri horrek bermatu egin beharko ditu askatasunak, enplegu osoa, lanaren banaketa, garapen jasagarria, etxebizitza-eskubidea, gizarte-babes osoa, gehikortasun fiskala, interes orokorren zerbitzuan egonen den sektore publiko eraginkor bat, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, demokrazia parte-hartzailea, autogobernua eta herrien autodeterminazio eskubidea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da IPES Elkartearikiko hitzarmena berritu dezan.**

### ***BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DUTE***

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentutaldeen eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita IPES Elkartearikiko hitzarmena berritu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

#### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren

babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako Batzordeak 2015eko urtarrilaren 20an egindako lan bileran, IPES Elkartearen ordezkariak ezagutzera eman zuten Dokumentazio Zentroa-Emakumearen Liburutegiak egun bizi duen egoera.

1976tik, IPES Elkartearen Dokumentazio Zentroa-Emakumearen Liburutegia doako zerbitzu bat da, jende guztiari irekia, emakumeen historia, pentsamendua eta sormenaren berri ematen lan egiten duena, eta genero-ikerkuntza eta -ikasketak babesten. Murrizketa ekonomikoek eta 2012ko aurrekontu luzatuetako kontusaila bete ez izanak kalte larria egin diote berriemate, aholkularitza eta ondarearen kontserbatze lan horri, eta horrek kalte konponezina eta atzera-egitea dakartza, eta egungo desberdintasunak areagotu.

Estatuan nahiz nazioartean aintzatespen handia jaso duen zentro espezializatu bat izan arren, Nafarroako Gobernuak 2013an erabaki zuen IPE-Sekin 2006tik zeukan kontratua ez berritzea, hala-

ko moduan non 2015ean Dokumentazio Zentroa halaberrez itxi beharko baita eta desagertu eginen baita Parlamentu honek defendatutako proiektu eta politikak garatzeko funtsezkoa den zerbitzu bat. Inkoherentea da genero-desberdintasunaren aurkako adierazpenak onestea eta aldi berean ahalbidetzea desager dadin gizarte berdintsuago baten aldeko eta generoaren araberrako diskriminazio-mota oro desagerrarazteko politikak egiteko ezinbestekoak diren tresnen finantzaketa.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du IPES Elkartearekiko hitzarmena berritu dezan, Nafarroan maila horretan bakarra den zerbitzua bermatzeko eta, hartara, genero-berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko funtsezko zeregina betetzen jarraitu ahal izan dezan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Foru parlamentariak: Bikendi Barea Aiestaran, Nekane Pérez Irazabal, Marisa de Simón Caballero eta Patxi Leuza García

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Baztan-Bidasoa eskualdearen egungo hezkuntza-premien diagnosia egin dezan, idatzizko konpromiso irmoa har dezan LHko ikastetxe integratu berri bat eraikitzeko behar diren jarduketak abian jartzeko, eta Elizondo LH-BHI ikastetxeko gabezia larriak konpon ditzan.**

*BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Baztan-Bidasoa eskualdearen egungo hezkuntza-premien diagnosia egin dezan, idatzizko konpromiso irmoa har dezan LHko ikastetxe integratu berri bat eraikitzeko behar diren jarduketak abian jartzeko, eta Elizondo LH-BHI ikastetxeko gabezia larriak konpon ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Hezkuntza Batzordeko kideak Elizondoko Lanbide Heziketako institutura joan ziren bisitan urtarrilaren 8an, hezkuntza-azpiegituren egoera eta horrek hezkuntza-proiektua aurrera ateratzeko dakartzan eragozpenak ezagutzeko.

Ikastetxea 1966an sortu zen, eta oso sakabanututa dagoen biztanleriari ematen dio zerbitzu, landagunean. Bisita horretan egiaztatu ahal izan zen oso txarra dela eraikineko teilatuaren egoera, aurreko ikasturteko ekainean desitsaste bat izan baitzuen; erlaitzak zurkaiztuta daude, eta ezin da eraikinaren alde hori erabili –tailerretan itoginak daude, ez dago isolamendu termikorik– instalazio elektrikoa eta berokuntzakoa gaizki daude... Instalazioen egoerari gehitu behar zaio makineria zaharrituta dagoela. Makina gehienek ez dituzte betetzen Europar Batasuneko araudiak ezarritako betekizunak, eta, batzuetan, hain dira zaharrak non ezin diren konpondu ere egin, ez dagoelako ordezkot piezarik.

Gauzak horrela, eskualdeko hezkuntza-erkidego osoak parte hartzen duen lan-batzorde bat sortu da, zeinetan planteatzen baita arazo hau aukera bihurtzea, eskualdearen hezkuntza-premien eta erreferentziako ikastetxe integral bat sortzekoaren gaineko hausnarketa egiteko.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Baztan-Bidasoa eskualdearen egungo hezkuntza-premien diagnostiko bat egin dezan eskualdeko gainerako eragileekin lankidetzan, eta hezkuntza arloko eskaintza gaurkotu dezan, eskaintza hori diagnostiko horren emaitzei egokituta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du idatzizko konpromiso irmoa har dezan, alait lasterren abiarazte aldera eskualderako LHko ikastetxe integratu berri bat eraikitze behar diren jarduketak, eskualdearen beharizanean erantzunen dien eskaintza egiteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du "FP Elizondo LH" BHLren gabezia larriak konpon ditzan, halako moduan non egungo eskaintza han bertan mantendu ahalko baita harik eta erreferentziako ikastetxe integratu berria sortu arte.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal, Marisa de Simón Caballero eta Manu Ayerdi Olaizola

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkio Hassanna Aalia-ri, asilo politikoa ukatu diotela-eta.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten dizkio Hassanna Aalia-ri.

